

163. FITXA ARABA - Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko enklabeari dirulaguntzak, 2025ean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, Vitoria -Gasteizko Kuadrilla izan ezik, eta, Trebiñuko enklabeari dagokionez, Trebiñuko Konderriko Udala edo Argantzongo Udala.

Sarbide-esteka: [Erregistro Elektronikoko Komuna - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [92/2025 Foru Agindua, uztailaren 24koa, onesten duena kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa, 2025ean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko](#)

Eremuak: Euskara

Zenbatekoa: 60.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/09/26

Laburpena

Laguntza hauen xede nagusia da **gizarte programa eta/edo jarduerai** laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan (Vitoria- Gasteizkoan izan ezik) eta Trebiñuko enklabeen euskal hiztunak eta horien sareak aktibatzeke, eta **euskaraz** bizitzeko aukerak bermatzeko baldintzak sortzen jarraitzeko, "Arabako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2019-2022)" jasotzen denari jarraituz.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, xede nagusia izanik **euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatzea, garatzea eta gauzatzea** 2025ean.

Diruz lagundu daitezkeen jardueren eta/edo kanpainen helburu espezifiko eta nabarmena izango da pertsonen arteko gizarte interakzioa, euskara komunikazio bidez hartuta, bai eta euskal hiztunak aktibatzea ere.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu ahal izango dira euskararen bidez **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra** bitartean egiten diren sozializazio jarduerak eta/edo kanpainak.